

GINARRIZKO LANBIDE HASTAPENERAKO ZERBITZUAK

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Herritarren eskubideak

- Begirunez artatu, informatu eta orientazioa hartzeko eskubidea.
- Eguneratutako eta egiazko informazio publikoa eta zehatza jasoteko eta orientaziorako eskubidea: interesdunari jagokozan espedienteen tramitazioa zertan dan jakin eta horreen dokumentuen kopiak lortzeko eskubidea (ikaslearen notak edota txosten akademikoak), beti be eskaria gurasoek edo haiek baimendutako legezko ordezkariak egiten badau.
- Autonomia erkidegoko hizkuntza ofiziala erabilteko eskubidea.
- Institutugaz eta bere programagaz erlazioatutako jarduera, izapide, helbide eta zerbitzuen inguruko informazioa aurrez aurre, telefonoz zein modu telematikoan jasotzeko eskubidea.
- Administrazioaren erantzuna jasotzea.
- Legez holan jagokonean, udalari eta bere zerbitzupuan dagozan ordezkari, zein langileei erantzukizunak eskatzeko eskubidea.
- Aurrematrikula, matrikula eta beka-eskaeraren kopia zigilatua jasotzeko eskubidea.
- Tramiteen erantzuleen identitatea eta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide desegoki edo kontrakoengatiko ohartarazpenen espedientea ebazteko epea.
- Bereizkeria bako zerbitzu pertsonalizatua eta eraginkorra jasoteko eskubidea.
- Norbere datu pertsonalak Institutuari emoten jakozanean, datuon babesa bermatuta eukiteko eskubidea.
- Jakinarazpenak edo informazioak aurkezteko lekua eta modua aukeratzea.
- Norbere datuen tratamendua eta helburua zein izango diran jakiteko eskubidea eta zein dan fitxategi horren arduraduna jakitekoa.
- Bere seme edo alabaren, edo legezko ordezkariaren datu pertsonalak eskuratzea, ezeztatzea edo zuzentzea eskubidea.
- Udal institutuko instalazioak egokiak eta irisgarriak izateko eskubidea.
- Legeek jasotzeko gainerako eskubideak.

Herritarrengandik itxaroten doguna

- Joan-etorriak gitxitzeko edo etorri beharrik ez dagoanean, egin nahi dan tramiteari buruzko informazioa eskuratzea. Horretarako, tramite bat egiten etorri aurretik 94.617.91.75 telefonora deitu.
- Tramitea ekintza bakar batean egin ahal izateko, beharrezko dokumentazioa aurkeztea. Horretarako, tramitea egiten etorri aurretik institutuko telefono zenbakira deitu.
- Institutuari adierazotako datuetan aldaketarik balego, ikastetxeari jakinarazotea, datuok eguneratuta mantentzeko.
- Araututa dagozan epeen barruan eskariak aurkeztu egitea.
- Zuzentasunezko eta errespetuzko jarrera mantentzea Institutuko hezkuntza-taldearekin eta Administrazioako eta garbiketako langileekin.
- Seme-alaben edo ordezkarien hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuan laguntzea
- 201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretua betetzea.

